



Txakurren trebezia agerian uzteko aukera

LEHIAKETA Txakurren trebezia neurtzeko Agility egiten ari dira Illunben. Hesiz, tunelbixoz eta aldatapatzos osatutako zirkuitua ahalik eta azkarren igarotzean datza proba. 55 bat txakur lehiatzen ari dira; batzuk Donostiakoak dira, baina bada,

Aragoitik, Kataluniatik eta Andaluziatik bere txakurra ekarri duenik ere. Txakurrek zirkuituari ekin aurretik, laguntzaleek tarte bat dute zirkuitua ikusteko «ezkerreko irudia», eta txakurrari zer agindu eman behar dizkieten buruan sartzeko.

Txakur azkarrenek minuturen bueltan gainditzen dituzte oztopo guztiak. Beste zenbaitzuk kateatuta gelditzen ziren, ez atzera ez aurrera. Gaur goizean ere, izango dira probak eta eguerdian bukatuko dute. Sarrera doakoa da. R. PEREZ



Ekzerrean, Intxaur Txikiren danborrada eta eskuinean 3x3 futbol txapelketaren irudia. R. PEREZ



Aste hasierako beroaren arrastorik gabe, festak ospatzen ari dira Hego Intxaurren. Danborrada jendetsua ibili da kalez kale, eta Sagastiederreko karpan giroa dago.

Eutsi goiari, Kaldero Jaun!

RAUL PEREZ

Estu eta larri dabil Kaldero Jaun gizajoa. Herenegun arratsaldean jaitsi zuten Intxaur Txikikoek Ametzagañatik eta ohi bezala, Sagastiederren utzi zuten, karparen ondoan. Lapiltoa du ondoan, eta tradizioak dio pertzean ura egonez gero festetako azken egunean Kaldero Jaun erre egin behar dela. Atzo euri pixka bat bota zuenez, ikusi beharko zer gertatzen den gaur 21:30ean auzotarrak epaitzen dutenean.

Gertatzen dena gertatzen dela, bai Kaldero Jaunek bai Sagastieder inguruan ibilitako gainerako guztiak izan zuten atzo zerekin ondo pasa. Goizean, gaztetxoek 3x3 futbol txapelketa jokatu zuten. Oso ate txikietan gola sartzea ez zen batere lan erraza izan. Arra-



Xuban Kañameres gaztea, aizkoran atzo. R. PEREZ

tsaldean, 18:00etan, danborrada jendetsua abiatu zen. Intxaurrea elkarteko helduak eta Intxaur Txikiko haurrak. Eta denei laguntzen, Larratxoko Jatorrenak txaranga. Kaitik ekarritako gurdixoan egin zuten bidea ume txikienek. Intxaurrekoak pozik zebiltzan hau-

rrak ondoan zizutela. «Guk bezain ondo edo hobeto jotzen dute. Serioago hartzen dute», esan zuten ia aho batez Mercedes Basurtok eta Ana Vazquezek. Danborrada kalerik kale ibili zen bitartean, herri kirolek auzotar askoren arreta bereganatu zuten. Perurena

aita-semeak aritu ziren, alde bate-tik, eta Kañameres eta Mugerza aizkolariak, beste aldetik. Baita, Xuban Kañameres gaztetxoa. Hamar urte besterik ez ditu, baina kementsu heldu zion aizkorari. Epaila bitxia izan zuten herri kirolariek: Gorriti. Bere animaliek haurrak xaxatzeaz gain, atzo epaile ikusi ahal izan zuten Intxaurren. Gustuko plaza du Gorriti-Sagastieder, nekez egiten baitu kale. Batzuk danborradari jarraitzen; beste batzuk herri kirolak ikusten, eta jai batzordekoak, jo eta ke karpantxan. Zapi berdea lepoan jarrita sardinak eta sagardo botilak zerbitzatzen ibili ziren. Gaur, gazteboentzat maskota lehiaketa izango da goizean, eta haur antzerkia, arratsaldean. Lehorreko estropada arrakastatsua, bestalde, eguerdian izango da.

'Trafiko' izenaz galdetuko du EAJK

Euskara Mugikortasun agenteen izena 'Trafikoa' edo 'Zirkulazioa' izan beharko litzatekeela uste dute jeltzaleek.

ERREDAKZIOA

Joan den astelehenetik zirkulazioaz arduratzen diren elastiko laranjadun agenteen uniformearen atzealdean ageri den hitzak-*Trafiko*- zalantza eragin dio EAJKi. Mertxe Garmendia zinegotziak jakitera eman duenez, horri buruz galdetu egingo dute dagokion batzordean. Garmendiak azaldu duenez, euskarazko hitza erabili nahi izanez gero, *trafikoa* agertu beharko litzateke, hau da-a hizkia faltako litzateke. Bestela, *Euskaltzaindiaren* irizpideak jarraituta, *zirkulazioa* zuzenagoa litzateke EAJren ustez, izan ere, *trafiko* hitzak beste esanahia du-merkataritarako eta droga salerosketarako erabiltzen da-.

«Agenteen izena aukeratzean hizkuntza irizpiderik jarraitu duten edo ez jakin nahi dugun», esan du Mertxe Garmendiak.

Zenbakia

465.000

■ euro. ONGEren ostiraleko zozketak ia milioi erdi euro utzi ditu herian. Denera, ONCEk jakitera eman duenez, bederatzita bartelek 35.000 euroko sari bana eman dute eta txartel batek 150.000 euro.